

# Milioi bat iheslari Europara jauzi egiteko borrokan

Zorigaiztoko 2015a Mediterraneoan: dagoeneko 1.700 etorkin baino gehiago ito dira Afrika eta Asiatik Europarako itsasbidean. Europar Batasunak Frontex zen operazioari –etorkinei bidea ixteko antolatua– Triton izena ipini dio eta Italiari laguntza handitu. Baina milioitik gora jende gehiago iritsiko da nola edo hala datozen urteetan Europa.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ETORKINEKIKO ERRUKIA DUTEN liderrak nahi ditut” idatzi du David Walker Manchesterreko apezpiku anglikanoak *The Observer* egunkarian. “Bultzatuta datoz etorkinak Europara, ez erakarrita. Sorterrietatik ihes egitera behartu dituzte gerrak, terrorismoak eta gutxiengokiko jazarpenak. Etsitako biktimatza hartu ordez horiek nahitara ari diren gaiztagintzat tratatzen dituen erretorika politikoa ez da bidezkoa eta gezurretan ari da”.

Walkerrek Erresuma Batuari eskatzen dio bere gain har ditzala berak parte hartutako gerra eta erasoen kalteak: “Atzerrietan gure herrialdeak egindako esku hartze ugariak berekin eraman behar dute guk parte hartu dugun gerren biktimak geure etxean hartzea babes eskubidea daukaten errefuxiatu gisa”.

Ez da segurua Britainia Handiko apezpikuari kasu handia egingo diotenik Britainia Handiko girstinoek. Ezta ere ingelesekin Irak, Siria, Libia eta beste bazter askotan gerran ibili diren herrialdeetakoek, Euskal Herrikoek barne. Han bezala hemen gogaikarriak dira urrutietatik bertakoei ustez lana eta bizimodua kentzera datozen jende kolore beltzaranoak.

2000tik 2013a bitartean 22.000 iheslari ito dira Mediterraneo

uretari hondoraturik, Wikipediaren arabera. 3.073 daude kontabilizatuak 2014an. Larritzekoa bai, ez ordea harritzekoa. Iaz bertan 280.000 etorkin sartu zen ilegalki Europan eta Balkanetan barrena zetozenez landa gainerako 220.000ak itsasoz ahalegindu ziren iristen Europako lehorrean, gehienak (170.000) Italiako kostara.

Ez dira gutxiago etorriko datozen urteetan. Nazio Batuen Erakundearen migrazio gaietarako berriemaile François Crepeauk *The Guardian* egunkariari esan dionez munduko herrialde aberatsek prestatu behar dute datozen bost urteetan milioi bat iheslari siriar hartzeko beren lurretan.

Bi multzo handi bereizi ditu Crepeauk hilabeteotan Europara datozen artean. Alde batetik daude Magrebetik eta Saharaz beheko Afrikatik eten gabe datozenak, hemen lana badela jakinik.

Baina hilabeteotako larrialdi humanitarioa bigarren sail baten etorrerak eragin du, gerrari ihesi Siriatik, Eritreatik, Somaliatik eta Afganistandik datozenenak: “Begaraten badiugu siriar eta eritrearrei, ohartuko gara oraintxe bertan Ekialde Hurbilean daudela kokaturik –Turkian, Libanon, Jordanian eta, eritrearren kasuan Egipton– baina leku horietan etorkizunik ez

*Civil Society Knowledge Center* gunearen argazkian Siriatik ihesi iritsitako Um Ahmed eta Abu Ahmed bere bi haur txikiekin Libanoko Tripoliko kanpamendu batean. Siria, Afganistan, Somalia, Eritrea edo Malitik gatazka politikoetatik ihesi datozen asko sorterrian klase ertainekoak ziren. Argazkiak bezala Libanon edo, batez ere, Turkian babesa aurkitu dutenek bizimodua atera behar dute beltzean edo oso merke lan eginez. Honek handiagotzen du bertako jendeen joera xenofoboa. Bestalde, Europarako jauzi garestia pagatzeko adina sos badute. NBE migrazio gaietarako berriemaile François Crepeauk dioenez, “jakin badakigu jende asko ari direla beren herrietatik ihes egiten, partikulariki Siriatik, eta horiei ez badizkiegu alde egiteko mekanismo ofizialak eskuratzen trafikatzailen atzaparretan eroriko dira. Europa erreaktionatzen ari ez delako sortu da trafikatzailentzako merkatua”.

daukate, hori ere badakigu. Herrialde horiek ez diete utziko gelditzen bertan. Iheslariak harapatuta daude ez beraiek eta ez beren haurrek etorkizunik ez daukaten lekuetan”.

## Kontrabandisten lasterketa

*Time* magazinean Ian Bremmerrek nabarmendu ditu Mediterraneoak bizi duen trafikoko hilkorraren bost ezaugarri. Lehenik, gatazka politikoetatik ihesi datozenak ugaritu direla. Gutxi batzuek lortu dute NBEren iheslari estatusa, gainerakoek ez dute beste aukerarik ikusten jende-trafikatzailen eskuetan beren buruak jartzea baino.

Gero eta gehiago datoz. Iazko kopuruak %43 gairatu dira apirila artean eta uda ez da iritsi oraindik. Libian bertan 600.000 pertsona daude Europara jauzia noiz egingo zain. Aldi berean, jendea onartu edo arbuiatzeko eskubidea estatu bakoitzak duenez, Europar Batasunako herrialde batzuek nozitu behar dute arazoa –funtsean Italia, Malta eta Greziak– bertan preso geratzen direlako Europako beste lurretara joan nahian ari direnak.

Bremmerrek nabarmendu du Turkiaren kasua. Honek bere lurretan 1,6 milioi siriar hartu ditu, Siriatik ihesi joandako jendeen erdiak. Orain artean osasun eta hezkuntza



euroko aurrekontua ordainduz, *Triton* operazio militarrekin geldiarazi nahi luke EBk itsasoz datorkion jende oldea. Uraren beste aldetik ari da gizakien kontrabandoan berezitutako mafia indartsua.

*Policy Forum* gunean azaldutako “*Unintended consequences*” (Uste gabeko ondorioak) analisisian datu hau eman dute: Mediterraneoan gizakien trafikoaren kontrabandoak 2014. urtean 1.000 milioi eurotik gora mugitu zituela. Artikulua sinatu duten Marie McAuliffe eta Khalid Koserrek ikerlanerako elkarriketatu dituzten 273 iheslari 15 herrialdeetatik iritsietatik dendenek aitortzen dute kontrabandistei pagatua zietela Europara iritsi ahal izateko. Garesti pagatu, inork ez 500 euro baino gutxiago, askok milatik gora, 6.000 eurotaraino.

Eskaria hain oparoa izanik, kontrabandistek eten gabe berritzen dituzte beren taktikak. Jendeak itsasoratzen dituzte klase eta neurri guztietako ontzietan. Azken aldian gero eta sarriagotan itsas zabalean jitoan abandonatzen dituzte ehunka pertsona zamaontzi handi eta zaharkituetan. Urtarrilean azienden garraiorako eraikitako *Ezadeen* bapore zaharrea lagata 350 iheslari utziz, kontrabandistek hiru milioi dolar irabazi zituzten.

Europarrentzako asko ala gutxi da milioi bat etorkin berri hartzea? Gaur EBn bizi garen 501 milioi biztanleen artean 31 dira EBz kanpoko herrialdeetan sortuak, %6,3. Baina immigrazioen inguruko erreakzioek sortzen duten zalapartarekin askoz gehiago direla irudi luke. ■


zerbitzuak bermatu dizkie iheslari, baina horiek zaintzea oso garestia denez errefuxiatu politiko eskubidea ukatzen die. Horrek Europarantzko uhin berriak eragingo omen ditu.

Xenofobiaren igoera da Bremerrek aipatzen duen bosgarren ezaugarria. Krisi humanitarioa egokitu da 80 urtean Europak nozitu duen atzeraldi ekonomik sakonekin batera. *Pew Research Center* erakundeak 2014an egindako inkestak erakutsi omen zuen europarren %55ek immigrazioa mugatzea nahi dutela, baina greziarren %86k eta italiarren %80k. Eskuin muturreko alderdientzako pagotxa eta gainerako indarrentzat xenofobia eta populismora lerratzeko tentazioa.

Europar Batasunak giza uholde honi hesia jartzea dauka lehenetsita bere estrategiaren atalen artean. Hesi fisikoa Balkanetatik barrena lehorretik zetorren trafikoari jarri zaio, 2012an Grezia eta Turkia arteko muga txarrantxaz gogorturik. Ondorioz, Mediterraneo ertza bihurtu da Europarako atari.

Italiak 2013an Mare Nostrum operazioa antolatu zuen, etorkinez zamatutako baporeak aurkitu eta onik lehorreratzeko. 2014an larrialdi humanitarioa berak bakarrik kudeatu ezinean europar guztiei laguntza eskaturik, EBk *Frontex* operazioa jarri zuen abian, aurtengo hondoratze hilgarrien ostean *Triton* izenez bataiatu dutena.

2015-2016 urteetarako 120 milioi





**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

**zuri begira**